

Aingerua akabatzeke

Virginia Woolfen 'Dalloway andrea' itzuli du Edok • 'Emakumeen lanbideak edo etxeko aingerua hiltzea' saiakera ere biltzen du

Iker Tubia Iruñea

Emakume batek egin behar duen lehenbiziko gauza etxeko aingerua hiltzea da. Hala esan zuen Virginia Woolfek 1931n emakume profesionalen aurrean emandako hitzaldian. Horixe zen, haren aburuz, emakumeek lan munduan zuten eragozpen nagusietako bat: barruko etsaia. Aingeru hori akabatu ondoren idatzi zuen *Dalloway andrea* eleberria, eta orain euskarara ekarri du Itziar Diez de Ultzurrunek, Edo argitaletxearekin. Ez da, baina, eleberri soila. Woolfen *Emakumeen lanbideak edo Etxeko Aingerua hiltzea* saiakera ere bildu dute liburuan. Saiakera Ana Isabel Moralesek itzuli du, eta bi testuak lotzen dituen hitz-atzea ere haren eskuek idatzi dute.

«Bi lanak oso lotuak daude, edo, gutxienez, lotura egitea oso aberasgarria egin zait niri», azaldu zuen Moralesek Iruñean, Zaldiko Maldiko elkartearen egindako aurkezpen antzezuan. Bai berak eta baita Diez de Ultzurrunek ere, gaztetxo zirela irakurri zuten lehenbizikoz eleberri hura. «Dalloway andrea gorroto nuen», aitortu zuen Moralesek. Hasieran liburuaren muina ulertzea zaila baita. Bigarrenere ere irakurri zuten. «Bide zaila hartu zuen Woolfek gauza sotil batez aritzeko».

Clarissa Dallowayk Etxeko Aingeruaren antz handia zuen. Aingeru hori emakume bati segurtasun eza eragin nahian ibiltzen den mamua da, goxoa izan behar duela esaten diona, patriarkatuaren neurritik sortutako rola atxikitzen dizkiona. Horregatik, Woolfen arabera, Etxeko



Ana Isabel Morales, liburuen aurkezpenaren. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Aingerua hiltzea zen lehenbiziko egitekoa.

«Emakume ideal viktoriarra deskribatzen zuen Coventry Patmoren *Etxeko Aingerua* poemak». 1854an izan zen hori. Gero, aingeruak Gilman ere mintzatu zen Charlotte Perkins. «Teorian aingerua hilda egon arren, haren mamua bizirik zegoen», esan zuen Moralesek. Ukiezina, suntsiezina dela konturatu zuen Woolf. Arreta jarri gero, aingeruaren hegala astintzen adi zitekeela. Mezu hori jasotzen da saiakeran.

Dalloway aingerua

Diaz de Ultzurrunek ere akabatu du Etxeko Aingerua itzulpena egin aurretik. «Pozik nago emaitzarekin, hau da nire ahaleginaren emaitza», esan zuen aurkezpenaren. Segidan agertu zen aingeruz mozorroturiko pertsonaia, baina hil egin zuen. «Zailago da

mamu bat hiltzea aingeru bat baino, baina zailagoa da aingerua dagoela konturatzea», azaldu zuen.

Besta bat antolatzea da Dallowayren kezka bakarra, hala hasten da eleberria: jaiaren antolaketarekin. Baina besta hori hainbat gai lantzeko aitzakia izan da Woolfentzat: maitasuna, homosexualitatea eta giza harremanak, gizarte egitura eta emakumeen rola, eromena eta hura artatzeko moduak, Lehen Mundu Gerra, kolonialismoa eta migrazioak.

Itzulpenari buruzko xehetasunak ere eman zituen itzultzaileak. Sintaxi eta egitura aldetik testua «oso bihurria» dela aitortu zuen. Hiru aukera egin zituen hasieratik: lan modernista izanik, Lizardi, Lauaxeta eta halako euskaratzen modernisten oihartzuna adierazteko, *beribila* eta *orlegi* eta halako hitzetan. Bigarrenik, sintaxi etenak eta joera etengabeak erabili zituen Woolfek, eta estilo horri jarraitu dio Diaz de Ultzurrunek. Hirugarrenik, «ausart samar» jokatu du euskalkiak nahastuta.

Eleberria 1925. urtean argitaratu zen, eta modernismoaren obra garrantzitsuenetako bat da. Hiru testuen baturak argi erakusten du Clarissa Dalloway eta Etxeko Aingerua emakumeen rola irudi bera direla. Lana borobiltzeko, Eider Salaberriak azala egin du. «Woolfen estetika oso ongi islatu du», esan du Iratxe Retolazak, Edo argitaletxeko kideak. Eleberria borondatezko lanari esker argitaratu dutela gaineratu zuen.

Behar ez zuen leku eta orduan

Immigrazioaz, gizarteratzeaz, identitateaz eta bakardadeaz mintzo da Koldo Izagirre, gordin, 'Dumitru' haur eta gazteentzako nobelan

Igor Susaeta Donostia

Koldo Izagirreraren hitzetan (Pa-saia, Gipuzkoa, 1953), oso sinplea da *Dumitru*-ren (Erein) sorburua, haur eta gazteentzat idatzi duen nobela garatuko duen kausa. «Mutiko bat lasterka, zamarra beltza soinean duela», Korrika doa, behar ez zuen lekuan eta behar ez zuen orduan zegoelako. «Gertakari tamalgarrietan hain ezaguna den esaldi horrekin, epaileak, Poliziak eta hainbat jendek erantzukizunak ezabatzen dituzte, gertatzen den guztia halabeharrezkoa balitz bezala». Idazlearen esanetan, gainera, behar ez den toki eta tenorearen egotea askoz ere larriagoa da gaztea izanik; zer esanik ez, *errumaniarra* jarritzen badu nortasun agerian. «Kasu horretan, salaketak ez du frogarik ere behar; immigrantea, izan ere, berez dago behar ez den leku eta orduan, noiznahi eta noiznahi», ondorioztatu zuen idazleak atzo Donostian, lanaren aurkezpenaren. Gizarteratzeaz, identitateaz, bakardadeaz eta immigrazioaz mintzo da Izagirre, «zuzen eta gordin», apainguririk gabe, *Dumitru* laneko 70 orrialde pasatxoetan.

Dumitru 12-14 bat urteko mutila eta Olatz haren gelakidea dira eleberriko pertsonaia nagusiak. Cosmin mutilaren aita –kaleko musikaria da–, eta Marta eta Felix neskatoaren ama eta amaxik ere, hurrenez hurren, badute protagonismoa. «Pertsonaia heldu

horiek, gaztetxoak helduen arazoekin jakinaren gainean egoten hasteko saioa egin dut». Kezka edo problema horiek pertsonalak (bakardadea) eta sozialak (lantegiko kontuak) dira. «Baina gazteak beti dauka ekiteko indarra, eta horrek sortzen du espiritu zabaltasun bat, baztertuenganako espiritua».

«Ez da kasualitatea»

Eskola, lantegia, etxebizitza eta kalea dira liburuak jokalekuak, eta, horiek erakutsiz, «estampa moduko batzuk eginda» egitura du Izagirrek, dokumental baten gisara. «Estanpaz estampa, gertakizunaren lotura sortzen da. Sare hori, kokalekuak, gertatuak eta pertsonaia lotzen dituen, historiaren fikzioa da; gainerako guztia, aldiz, oso errealista da». Hortaz, nobela askotan agertzen den ohar bat datorkio burura egileari: «Nobela labur honetan azaltzen diren pertsonaiek eta gertatuak errealtatearekin duten antza ez da kasualitatea».

Pertsonaia nagusi horien, gaztetxoaren errebeldiak gidatzen du kontakizuna, Izagirreraren iritziz. «Ezarrira dagoen hori zalantzan jartzen dute. Kontestazio ahalmena da lanaren barne egitura». Eta izorramendua da gaia: «Gazte eta emakumezko izatearen izorramendua; gazte eta gizonezko izatearen izorramendua; gazte eta euskaldun izatearen izorramendua; eta euskaldun eta errumaniar izatearen sekulako izorramendua».



Koldo Izagirre, atzo, Donostian, *Dumitru* liburuaren eskuetan duela. GORKA RUBIO / ARP

Jakin 203
herria kultura hizkuntza uztaila-abuztua 2014

Parte hartzea eta herrigintza

ZESAR MARTINEZ · NICOLA PORON
JON MARTINEZ · JON MARKEL
GRIÑAZABAL · NEREA AGUIRE · OLGA
JIMENEZ · MARIA LUXAN · AITZOL
GRIÑAZABAL · UNAI TALBURUA
OLATZ DAÑOBETIA

EGUNEN GURPILEAN
JOSBA BARANDIARAN · DABO AJAURI
GORKA JULIO · NAGORE AMONDIARAN

IZAN
ZAITEZ
JAKINKIDE

Tolosa hiribidea, 103-1 C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus